

Lurralde : invest. espac.	35	2012	p: 247-268	ISSN 0211-5891	ISSN 1697-3070 (e)
---------------------------	----	------	------------	----------------	--------------------

LURRALDE ANTOLAMENDUA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE-
POLITIKEN BILAKAERA, GARAPENA ETA GEROA.

Recibido:2012-08-02

Aceptado:2012-10-11

Itxaro LATASA ZABALLOS¹
Pedro José LOZANO VALENCIA¹
Alfonso SANZ ARAUJO²
Joseba Koldobika ARBAIZA ALVÁREZ¹.

1 Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
Geografía, Historiaurrea eta Arkeologia Saila.
Tomás y Valiente kalea, z/g. 01006 Vitoria-Gasteiz (Espainia)

2 Gobierno Vasco/Eusko Jaurlaritzza.
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saila.
Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz (Espainia)

itxaro.latasa@ehu.es - pedrojose.lozano@ehu.es
alfonso-sanz@ej-gv.es - josebakoldobika.arbaiza@ehu.es

ABSTRACT:

The paper sets out a description, analysis and evaluation of the history and the most important landmarks in the policy of Territorial Planning carried out in the Autonomous Community of the Basque Country. It takes into account the beginnings and the evolution of this policy both with regard to the legal codes that legitimize this sector, as well as to those documents of the legal framework, which are essentials for the achievement of the planning policy. The paper further analyses management plans such as the DOT (Territorial Planning Guidelines), the PTP (Partial Territorial Plan) and PTS (Territorial Sector Plans), as well as the influence that these plans have been at the local level (General Plans of Urban Planning). In addition, it also analyses the degree of fulfilment of the objectives, as well as the achievement, implementation or development of each of the previously referenced management plans. Finally, it deals with a deep reflection on what this policy has contributed to society and the territory of the Basque country and with the future challenges that have not yet been optimally tackled or that show a great potential for the future.

Key words: Territorial Plannig, DOT, PTP, PTS, future challenges, sustainability

LABURPENA

Komunikazio honek Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egin den Lurralde Antolamendurako politikaren barruan izandako historiaren eta mugarrin deskribapena, analisia eta ebaluazioa egiten du. Horretarako, aipatu politikaren hastapenak eta bilakaera hartzen dira kontuan, bai aipatu sektoreari benetako balioa ematen dioten lege-kodeei dagokienean, bai aipatu arau-esparrutik sortutako eta, aldi berean, aipatu politika gauzatzeko funtsezkoak diren dokumentuei dagokienean. Horrela, hainbat zuzentzauren eta planen analisi sakona egiten da, besteak beste, Lurralde Antolamendurako Gidalerroena (LAG), lurralde-plan partzialena (LPP) eta lurralde-plan sektorialena (LPS). Halaber, horiek tokian-tokian izan duten eragina aztertu da (hiri-antolamenduko plan orokorra). Horrez gain, jasotako helburuak zein mailatan bete diren analizatu da, baita lehen aipatutako plangintza-irudi horietako bakoitza zein mailatan lortu, ezarri edo garatu den ere. Bukatzeko, aipatu politikak Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteari eta lurraldeari egin dien ekarpenari, eta, gaur-gaurkoz, behar bezala landu ez diren edo aurrera begira aukera handiak erakusten dituzten etorkizuneko erronkei buruzko hausnarketa sakon bati heldu zaio.

Gako-hitzak: Lurralde-antolamendua, LAG, LPP, LPS, gerora begirako erronkak, iraunkortasuna.

RESUMEN

La presente comunicación realiza una descripción, análisis y evaluación de la historia y los hitos más importantes dentro de la política de Ordenación del Territorio realizada en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). Para ello se toman en cuenta los inicios y la evolución de dicha política tanto en lo relacionado con los códigos legales que dan carta de naturaleza a dicho sector, como con aquellos documentos emanados de dicho marco normativo y, a la vez, esenciales para la consecución de dicha política. Así, se realiza un amplio análisis de figuras como las DOT (Directrices de Ordenación Territorial), los PTP (Planes Territoriales Parciales) y PTS (Planes Territoriales Sectoriales), así como la influencia que dichas figuras han tenido a escala local (Planes Generales de Ordenación Urbana). Además, también se analiza el grado de cumplimiento de los objetivos planteados, así como la consecución, implementación o desarrollo de cada una de las figuras de planificación antes referidas. Para finalizar, se aborda una profunda reflexión sobre lo que dicha política ha aportado a la sociedad y el territorio del País Vasco y los retos de futuro que todavía no han sido afrontados de forma óptima o muestran una gran potencialidad de cara al futuro.

Palabras clave: Ordenación Territorial, DOT, PTP, PTS, retos de futuro, sostenibilidad.

1. SARRERA


‘Lurralde-antolamendua’ izeneko diziplina Bigarren Mundu Gerraz geroztik garatu zen sistematikoki eta erregulariki. Erdialdeko Europan, une hartan, makina bat gune izan ziren elkortuak eta suntsituak. Alabaina, egoera hura arazo bihurtetik urrun, erronka bihurtu zen, lurralde horiek modu eraginkorragoz eratze aldera.

Hala ere, neurri batean edo bestean, LA existitzen da gizakiak transhumantzia alde batera utzi zuenetik, izan ere lurralde batean pausatu, eta topatu eta ustiatu zituen baliabideak kudeatu ez ezik, beste talde eta etnietatik babestu ere egin behar izan zituen, prozesu naturaletatik probetxua atera, eta, oro har, bere hazkunde demografikoa egokitu egin behar izan zuen baliabideek (ehiza, nekazaritza, abeltzaintza, egurra, metalak, erregaiak, ura, eta abar) eskaintzen zizkieten berritze-erritmoetara. Kultura askok ez zuten baliabide horiekiko errespeturik agertu, eta beren izatea bera ere arriskuan jarri zuten (Mc Neill, 2003; Diamond, 2006).

Lehen kultura nagusietatik (Mesopotamia eta Egipto) gizarteek modu zehatz batean okupatzen eta kudeatzen zuten lurraldea, eta ingurumen eta kultur mehatxuak aintzat hartzen zituzten. Aldi berean, guztiz premiazkoak zituzten baliabideak, ura kasu, aprobetxatzen zituzten, bakoitzak bere modura.

Euskal Autonomia Erkidegoak (1. irudia) nahikoa historia berria erakusten du. Demokrazia Espainiara helduta eman ziren horren inguruko lehen urratsak. Horren aurretik, Francoren erregimenaren pean nahiz trantsizio-garaian, lurzorua legeko bi bertsioek (1956 eta 1975) aurreikusi zuten tokian-tokiko plangintza zein Estatu-mailakoa egitea; hau da, Antolamendu

Plan Nazionala (APN) edo Koordinazioko Lurralde Plan Zuzentzailea (KLPZ), erregiokoa, probintziakoa nahiz eskualdekoa. Hala ere, ez zen halako planik garatu, eta LA hutsaren hurrena izan zen. Plan nagusiek edo udalerrri bakoitzaren arau subsidiarioek osatu zuten lurralde-antolamendua.



1. irudia. Azterlanaren xede den eremuaren kokapena. Lanketa propioa.

Espainiako Konstituzioak berak (1978) eman zien benetako balioa autonomia-erkidegoek lurralde-antolamenduaren arloan garatu behar zituzten eskumenei; zehazki, konstituzioaren 148. artikulutik aurrera (Lasagabaster eta Lazcano, 1999).

Legegintzako lehen mugarrri horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuak, 1979an Lege Organiko gisa onartuak, lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arloko eskumenak autonomia-erkidegoaren esku uztea ebatzi zuen 1980ko azaroan. Hortaz, geroari begira aipatu erkidegoko gobernuek emango zituzten gai horren inguruko legeak. Hala ere, hamar urte igaro ziren 1990eko maiatzaren 31n 4/1990 Legea, euskal autonomia-erkidegoko lurralde-antolamenduari buruzkoa (aurrerantzean EAELAL), onartzerako. Aipatu legeak antolamendurako tresnak zeintzuk izango ziren zehaztu zituen, eta eskualde-mailako dokumentuari garrantzi berezia eman zion: Alegia, 'lurralde-antolamenduko gidalerroak' izenekoari (aurrerantzean LAG). Halaber, plangintzarako beste bi dokumentu ere ebatzi zituen: lurralde-plan partziala (aurrerantzean LPP), definitu beharreko eskualde edo eremu funtzional bakoitza arautzen duena; eta lurralde-plan sektorialak (aurrerantzean LPS), eskualde-mailan sektore bakoitza arautzen dutenak (kostaldea, ibaiak, eremu hezeak, errepideak, ekonomia-jarduerak, energia eta abar).

Eskualde-mailako lehen plana 1997ko otsailaren 11n onartu zen ez soilik plangintzarako dokumentu gisa, baita 28/1997 Dekretu gisa ere. Hortaz, 17 urtetik gora pasa ziren transferentzia horiek EAEn esku utzi eta lehen plangintza-dokumentua landu zen arte. Gaur egun, LAG horiek aldatze-prozesuan daude. Aurreikuspenen arabera, luze gabe jarriko da jendaurrean lehenengo bilakaera-dokumentua. Aldaketa bezala eratu da ulertuta eredia funtsean eraginkorra dela; hortaz, ez du aldaketa nabarmenik izango. Urte hauetan, LAGetan jasotakoaren arabera, LAren prozesu orokorraren barruan hainbat urrats zehatz eman izan dira. Horri dagokionez, lehen urratsa eskualdeak irizpide funtzionalen arabera eratzea izan zen (eragin-eremuak, eragin ekonomikoa, azpiegiturak, eta abar), ohikoak ziren eta historikoki erabili izan diren bestelako irizpideen gainera. Horrela, eremu funtzionalak eratu ziren. Orobat, arian-arian sektoreak ere zehaztu ziren. Hurrengo urratsean, definitutako eremu eta sektore bakoitzerako plangintza-prozesuak jarri ziren martxan; horrela, aipatu irudien hainbat garapen-fase lantzen hasi ziren.

LAG horiek ere eragin handia izan dute hiri-espazioen antolamenduan; horrela, tokian tokiko garapenak eta plangintzak baldintzatu dituzte (Erquicia, 2003). Nolanahi ere, gai hori ez dugu komunikazio honetan landuko, hirigintzari eta horren inguruko plangintzari baitagokie.

2. HELBURUAK

Komunikazio honek hainbat xede ditu, honakook:

- EAEn lurraldea antolatzeko politikaren mugari historiko, legegile eta plangintzako mugari garrantzitsuenen sintesi-deskribapena egitea.
- Mugari legegile eta plangintzako mugari bakoitza zein mailatan betetzen ari den, eta, halaber, azken urteotan nola garatu diren aztertzea.
- Une hauetan EAEn lurralde-politika zertan den erakutsiko duen diagnostikoa egitea.
- Geroari begirako erronkak izan daitezkeen hainbat afera proposatzea; bai garatu beharreko lurralde-politikekin loturik, bai legegintza-arloan, arlo juridikoan nahiz plangintzakoan egindako ahaleginei behar bezala erantzun ez dieten sektoreekin eta aferekin loturik.

3. METODOLOGIA

Komunikazio hau gauzatzeko erabilitako metodologia analisi-, diagnostiko-, ebaluazio- eta alternatibak formulatze-prozesu batean oinarritu da. Aipatu alternatibak EAEn egokitutako plangintza-irudi bakoitzaren eta esparru juridiko eta legegilearen etorkizuneko erronka modura proposatu dira.

Prozesu hori Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileek arlo akademikoan egindako lan-urte luzeren emaitza da, hainbat ikerketa-proiektu, doktore-tesi, artikulua eta monografia oinarri hartuta, baita hainbat mailatan plangintza-irudietan izandako parte hartzea ere.


Lan honen bigarren sinatzaileari dagokionez, oinarria ere esperientzia zabala da, hainbat mailatan (tokian-tokian, eskualdean nahiz erregioan) zenbait plangintza- eta legegintza-irudiren kudeatzaile gisa parte hartuta.

EAEn garatutako legegintza- eta plangintza-mugarri bakoitzaren analitik abiaturik, AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) metodologiaren bidez mugari horietako bakoitzaren hasieran finkatutako helburuen gauzatze-maila diagnostikatu da. Analisia eta diagnostikoa eginda, gerora begirako erronkak proposatzen dira. Gure iritziz, etorkizun

hurbilean heldu beharrekoak dira, lurraldeari eragiten dioten dinamika negatiboak saiheste aldera, eta dagoeneko egon badauden edo proposa daitezkeen indarrak edo aukerak baliatzen jarraitze aldera.

4. LEGE IRUDIAK ETA PLANGINTZA IRUDIAK LURRALDEAREN ANTOLAMENDUAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Aurreko epigrafean aipatu bezala, EAEn LAko politikak 4/1990 Legeak, euskal autonomia-erkidegoko lurralde-antolamenduari buruzkoak (EAELAL), xedatzen ditu. Dokumentu horrek zuzentzen du gerora deskribatuko diren planeamendu-irudien garapena. Hala ere, Legeak berak xedatzen du nola eta zein unetan jarriko den martxan irudi horietako bakoitza, baita aipatu plangintzek landu eta jaso beharko duten edukia ere. Era berean, irudiak kontuan hartuta (2. irudia) LAko esparru orokorrak izan behar duen hierarkia xedatzen du. Horrela, EAELALk LAGen garapena eta edukiak zuzentzen ditu, eta LAG horiek, berriz, LPPen eta LPSen garapena zehazten eta zuzentzen dituzte. Horien artean ere bada lehentasunezko ordena, eta horren arabera, lehenek bigarrenek baino maila handiagoa dute.



2. irudia. Mugarri juridikoen hierarkizazioa Euskal Autonomia Erkidegoko LAren barruan

EAELAL eta LAG aldatzeko, berraztertzeko eta egokitzeko eskumenak Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren esku daude, hurrenez hurren. LPPak eta LPSak, berriz, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiak sortu eta zuzendu beharrekoak dira. Bigarren horiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunari dagokio aurrea hartzea. Aldundiak horiei buruzko informazioa jasoko dute. Hala ere, aldundiko organo edo sail eskudunek ere abiaraz eta koordina dezakete LPSak sortzeko eta onartzeko prozesu osoa. Azken hori da lurralde historikoetarako errepedien hiru LPSen kasua (Ávila, 1992).

Azkenik, tokian tokiko eskala bat ere egongo litzateke, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren Legeak arautuko luke (Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea). Lege hori abiapuntu hartuta, tokian-tokian lurzoruaren erabilera eta maila bakoitzerako baimendutako jarduerak arautu behar dituzten irudiak xedatzen dira. Lege horrek, horrenbestez, EAEko udalerrri bakoitzaren hiri-antolamenduaren plangintza orokorrak (aurrerantzean HAPO) arautzen ditu, baita behe-mailako edo udalerriaz beheko irudiak ere: plan partzialak, barne-erreformako planak, eta abar. Lege horren bidez, udalerriei dagokie soilik lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa egitea. Hala ere, goi-mailako plan horiek (LAG, LPP eta LPS) ebatzitakoak tokiko plan horietan jaso behar dira; horrela, HAPOak bideratzeak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendurako batzordearen (EAELAB) oniritzia eduki beharko du.

Arestian nabarmendu bezala, EAELALK hiru plangintza-irudi desberdin xedatu zituen EAEn Lako politika guztiak garatzeko.

4.1 Lurralde-antolamenduko gidalerroak (LAG)

LAGak 1997an onartu ziren, eta 14 urtetik gora daramate indarrean. Hortaz, LA politikak garatu ahal izan dituzte autonomia-erkidegoaren mailan. Dohainetako bat da autonomiaren barruan onartutako plangintza-dokumentua izana, eta, hortaz, LAren arloko mugarri historikoa da. Gaur egun, aipatu dokumentua birformulatzeko prozesu interesgarrian murgilduta gaude. Hala ere, LAGek aukera- eta aintzatespen-guneak dituzte. Azter ditzagun.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dugu legeak eta, batez ere, LAGek lurralde-kultura bat sortu dutela, eta horrek iraganaren eta geroaren arteko mugarria ekarri du. LAGek nolabait ere mugatu egin dituzte oso egokiak ez ziren dinamikak, eta, neurri batean, zentzarazi dute udalek lurzoruak izan zitzakeen kategoriak zehazteko eta horietako bakoitzean egin zitekeenaz erabakitzeke zuten eskumena. Nolabaiteko diziplina ezarri dute LArekin lotura duten kargu politikoen eta teknikoaren artean, eskumenekotasun-maila murriztuz (Urkidi, 2007). Ildo horretan, erabileren matrizearekin bete-betea asmatu zen; izan ere, lurralde-unitate bakoitzari zegokiona zehaztu baitzuen, eta lotesle bihurtu zuen. Hala ere, lehenitasuna hartuko zuten arrazoietan eta justifikazioetan sakondu gabe, une hartan Eusko Jaurlaritzak aipatu zehaztapenei erantzun beharko ziekeen. Horren adibidea dugu goi-larreak edo menditarrak. Horietan ez zen inolako azpiegitura linealik jarri behar, eta, hala ere, aerosorgailuekin salbuespena egin zen (Ruiz, 2006).

LAGek, LPPek eta LPSek bezalaxe, azpimarratzeko moduko kalitate teknikoa dute. Aipatu plangintza zorrotasun teknikoarekin burutu zen, nahiz eta gaur egun errealitate historikoarekin bat ez datozen premisapean; izan ere, ez baititu jasotzen azken urteotan agertu izan diren bikaintasun handiagoko plangintza batek berezkoak dituen elementuak, besteak beste, ingurumen-aldagaia, paisaia eta guztiok nahiko genukeen iraunkortasuna. Lurraldearen plangintza-estrategiaren diseinu-lanaren zati handi bat hainbat zailtasuneko testuingurutan bultzatu zen; hauen artean ditugu, besteak beste, industria-ereduaren krisia eta gako-sektoreen birmoldaketa, gizarte-eraldaketa sakonak, begien bistako aldaketa demografikoak eta kontsumo-ondasunen produkzioan oinarritutako ekonomia neoliberalak.


Hori dela-eta, bistakoa da indarrean dagoen dokumentua eguneratu beharra dagoela, gaur egungo premisak kontuan hartuta; besteak beste, herritarren parte-hartze handiagoa. Halaber, sortuko den dokumentu berriak paradigmaren aldaketa hartu beharko luke aintzat, eta zalantzarik gabe hazkunderari eta lurzorua-ren artifizializazioari eutsi beharko lieke, eta lurraldearen trinkotasun eta iraunkortasun handiagoaren alde egin beharko luke.

Plangintza-irudietan, baina batez ere LAGetan, lurralde-sistemako osagaiak eta alderdiak (ingurune fisikoa, biztanleria, asentamenduen sistema, azpiegiturak, administrazio- eta lege-esparruak, eta abar) lantzen dira luze eta zorrotz. Horrela, erabateko LA globala lantzen da, eta, gainera, ahaleginak egiten dira dokumentuaren zatiak eta, hortaz, aipatutako sektoreak koordinatzen. Hala ere, eta aukera horri kontrajarria, azpiegiturek eta enpresa- eta ekonomia-politikarekin zuzeneko lotura duten zenbait kontuk lehentasuna izan dute ingurumen-neurrien kaltetan; horiek horrela, abiarazitako LAGen aldaketetan berriz hausnartu beharko da egoera hori.

Horiek gorabehera, lortu dute lurraldea ez hartzea soilik gizartearen jardueraren eta erabilera-lurzorua-ren euskarri huts gisa, bere osotasunean baizik, aurreko hamarkadetakoa hainbat arkitekto-hirigilek lurraldearen hutsuneak zeritzaten haiek behar bezala baloratze aldera, eta horrela izaera natural eta landatar nabarmeneko guneak definituz. Azken bi horiek azalera aldetik nabarmen gailentzen dira, nahiz eta azken hamarkada hauetan lotuago ageri diren besteak beste ekoizpenekoak, hirigintzakoak eta azpiegiturakoak diren bestelako jardurekin. Horregatik, LAGek zenbait sektoretan eragingarriak izan behar dute, bereziki isurialde atlantikoan, gero eta urriagoa den baliabidea, lurzorua hain zuzen ere, orekatzeko eta horren erabilpena errespetatzeko. Adibide gisa esan dezakegu 2006an Eusko Jauriaritzako Ingurumen eta Lurraldearen Antolamendu sailak kezka adierazi zuela lurzorua-ren gehiegizko 'artifizializazioagatik': % 20 1994tik 2005era bitartean. Aipatu urte horietan, landa-eremuko 7.500 hektarea baino gehiago okupatu ziren honela; bizitegitarako azalera berriak 4.480 hektarea egin zuen gora (% 31 gehiago); eta jarduera ekonomikoetarako bideratutakoak 2.631 hektarea egin zuen gora (% 46 gehiago). Komunikazio-bideetarako azalera egin zuen 418 hektarea (% 2,3 gehiago); hori, kontuan hartu gabe, besteak beste, Bilbo metropolitarraren hegoaldeko saihesbidea, Urumeako autobia, Donostiako bigarren ingurubidea eta AP1 (Maltzaga - Urbina). Zementatutako azalera, guztizkoaren % 5,2koa zen 1994an, gaur egun, berriz, % 7,1ekoa. Okupazioak gora egin du, eta horrek pentsarazi behar digu joera demografikoa uztartu beharra dugula lurraldearen jasangarritasuna ahalbidetuko badugu.

Datu horiek eta lurralde-egitura polizentrikoaren alde (oreka gordez nukleo nagusien eta bigarren, hirugarren, laugarren... mailakoen artean, herritarrak modu deszentralizatuan eta ez pilatuan bana zitezten) LAGek egiten zituzten apustuak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke kontu hau ez dela erabat konpondu; izan ere, gaur-gaurkoz, desoreka nabarmenak baitaude landa-eremuen eta hiri-eremuen artean, kostaldearen eta barnealdearen artean, makrozefaliak Araban eta Bizkaian, eta abar. Hala ere, hautakaria izanik 'hobe zatekeen LAGak egon izan ez balira'? Erantzuna argia da; ez.

Azkenik, aipatu beharra dugu gidalerroek legez 8 urteko iraunaldia eduki behar dutela, eta epe hori igarota, berraztertu behar direla. Hala ere, Eusko Jauriaritzak berak bi urtetik bi urtera 'Lurraldearen antolamendurako gidalerroen egoera' izeneko memoria lantzen du, eta horretan lurraldearen antolamendurako gidalerroen aplikazio-maila, lurralde- eta udal-planeamenduan duen eragina, eta antzemandako doikuntza ezak saihesteko burutu beharreko ekintzak aztertzen dira.



3. irudia. LAGen lurralde-eredua. Iturria: LAG dokumentua (Eusko Jaurlaritz), 1997

Horren ondorioz, nola lurralde-plan partzialek hala sektorialeak, teoriar, iraunaldi eta berraztertze-eritmo horiek berberak dituzte, nahiz eta LAGen berrikuspena, egiazta daitekeenaren arabera, atzeratu egin den. Baina eskuartearen ditugun egiturazko gako nagusien konplexutasunari erreparatuta, ulertzekoa da igarotako denbora horren funtzionaltasuna ikusteko eta eredian aurrera begirako hobekuntza-formulak identifikatzeko. Halaxe gertatzen da 'etxebizitzetarako zenbatekoa' definitzen duen metodologian, beharrezko zuzenketa behar lukeenean.

LAG dokumentuaren beraren bidez, LPSk eta LPPk hurrenez hurren planifikatu eta kontrolatu behar izan zituzten sektoreak eta eremu funtzionalak ezarri ziren. Hori bera ere LAGen eta EAELALren lorpena da. Sektoreak nahiz eremu funtzionalak eztabaida daitezke; hala ere, horiek aukeratuta, ahalegin handia egin da horien plangintza egiten.

4.2 Lurralde-plan partzialak (LPP)

LPPak funtsezko tresna dira eskualdearen plangintza egiteko eta eskualdea antolatzeko. Gainerako plangintza-irudiekiko, LAGek zehaztutakoa adierazi behar dute, eta, aldi berean, LPSetan eragina izan behar dute, eta horiekin koordinatu behar dira, nahiz eta LPSak maila beharrezkoak izan. LPPek honako alderdi hauek jaso behar dituzte:

A) Antolamenduaren helburuak definitzea, abiapuntu hartuta lurraldearen egungo egoeraren, egoera sozioekonomikoaren eta lurraldearen bilakaera-aukeren analisia.

B) Espazio optimoak zehaztea, azpiegitura handien euskarri izan daitezen, azpiegitura horien ezaugarriei erreparatuta.

C) Planaren xede den eremurako interes komunekoak diren ekipamenduen kokapena definitzea.

D) Hirigintza-antolamenduak bete beharko dituen irizpideak, printzipioak eta arau orokorrak.

E) Birmoldatu, leheneratu edo birgaitu beharko diren eremuak definitzea, xedea izanik eremu horien degradazioa saihestea edo guztiz nahiz partzialki bestelako erabileretarako berreskuratzea, eta, halaber, garatu beharreko programak eta horiek gauzatzera bideratutako laguntza-neurriak definitzea.

F) Ondoren aipatzen diren xede horietakoren baterako gorde beharko diren lurzoru-azalera kuantifikatzea:

- Sustapen publiko nahiz pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea, edo etorkizunean berariazko arauen bidez azken prezio mugatua izan dezaketen beste etxebizitza batzuk eraikitzea.
- Poligono urbanizatuak sortzeko aukera emango duen industria-lurzoruaren sustapen publikoa.

G) Gidalerroek jasotzen dituzten jarraibideak garatzeko behar diren irizpideak, arauak eta printzipioak.

Horiez gain, LPPren eskumenak ez diren aferak hartu behar dira kontuan. Horien artean, azpimarratu beharko genuke ez duela lurzoruak kalifikatzen, ezta sailkatzen ere. Alegia, ez ditu lurzoru-motak zehaztera eramango duten eskumenak. Baliabide horren sailkapenez gain, kalifikazioa ere toki-erakundeen, udalerrien eskumena da. Horretaz arduratzen diren planak HAPOak dira. LPPek ere ez dute izan behar hainbat hirigintza-planen batura edo alboratzea; aitzitik, berezko nortasuna eduki behar dute, eta ez dute izan behar hainbat udal-plangintzaren batukari hutsa.

Lehen azaldutakoa kontuan hartuta, honako eremu funtzionalak, eta, beraz, nahitaezko LPPak zehaztu dira (4. irudia).

Bizkaiak 6 eremu funtzional ditu, honela banaturik: Balmaseda - Zalla eremu funtzionala (10 udalerri hartzen ditu barne), Bilbo metropolitarrak (33 udalerri), Durango (11 udalerri), Gernika - Markina (30 udalerri), Igorre (9 udalerri) eta Mungia (9 udalerri).

Gipuzkoak ere 6 eremu funtzional ditu, honela banaturik: Beasain - Zumarraga eremu funtzionala (24 udalerri hartzen ditu barne), Donostialdea - Bidasoa Beherea (13 udalerri), Eibar - Ermua (8 udalerri), Arrasate - Bergara (9 udalerri), Tolosaldea (27 udalerri), Zarautz - Azpeitia (10 udalerria).

Arabak 3 eremu funtzional ditu, honela banaturik: Guardiako eremu funtzionala (15 udalerri hartzen ditu barne), Laudio (8 udalerri), Araba erdialdea edo Vitoria-Gasteiz (35 udalerri).

Hainbat eremurik lurraldeak bi probintzietan banaturik dute. Horren lekuko dugu Eibar - Ermua eremua; lehena Gipuzkoan eta bigarrena Bizkaian. Hala ere, lurralde-unitatea nabarmena da, eta akatsa zatekeen alderdi mugatzailea probintzia-muga hartu izana.



4. irudia. LAGek EAErako definitzen dituzten eremu funtzionalak. Iturria: LAG, 1997. Euzko Jaurlaritza.

4.2 Lurralde-plan sektorialak (LPS)

LPSak antolamendu sektorialeko tresnak dira, eta Euzko Jaurlaritzako nahiz aldundietako sail eskudunek sustatzen dituzte. Hala ere, horiek guztiek errespetatu eta adierazi beharko dituzte goi-mailako irudiek (LAG eta LPP) xedatutakoa, arestian aipatu bezala, erlazio hierarkiko argia egon dadin.

Ondo zehaztutako hiru arlo nagusi daude: Lehena, lurzoruaren politika gauzatzeari buruzkoa da. Bigarrena azpiegiturei buruzkoa da, eta hirugarrena ingurumen- eta ondare-arloko politikari buruzkoa.

LPS horien guztien helburua da euskal administrazioen antolamendu sektorialerako tresnak arautzea. Gaur egun, 25 lurralde-plan sektorial definitu dira. Jarraian, aipatutako hiru multzo nagusi horien barruan jaso ditugu:

- Lurzoruaren arloko politika: herri-administrazioek lurzoria sortzea ekonomia-jardueretarako eta ekipamendu komertzialetarako, eta lurzoria sortzea etxebizitza publikoak sustatzeko.

- Azpiegitura handiak: Arabako errepideak, Bizkaiko errepideak, Gipuzkoako errepideak, errepideen plan orokorra, energia eolikoa, trenbideen sarea, portuak eta garraio-sare intermodal eta logistikoa.
- Ingurumena eta ondarea: ibaien eta erreken ertzak antolatzea, hezeguneak, kostaldea babestea, Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegiturak, kultura-ondarea, eta nekazaritza eta basoak.
-

Ondorengo bi taulek lehen aipatutako LPP eta LPS bakoitza zein egoeratan dagoen jasotzen dute.

LPP TRAMITATZEN	LPS TRAMITATZEN
Balmaseda - Zalla (Enkarterriak)	Garraio-sare logistiko eta intermodalerako LPS
Durango (2011ko iraila, EHAA)	Arabako trenbide-sarerako LPS
Gernika - Markina	Gipuzkoako trenbide-sarerako LPS (aldaketa)
Tolosa	EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LPS (aldaketa)
Mungia	Gipuzkoako errepideen LPS
Donostia	Etxebizitzaren sustapen publikorako LPS
	Euskal Autonomia Erkidegoko portuak antolatzeko LPS
	Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LPS
	Kultur Ondareko LPS
	EAEko hezegunean LPS (aldaketa)
	Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegiturarako LPS
	Gipuzkoako bidegorrien LPS

1. taula: LPP eta LPS tramitatze bidean¹. Iturria: Eusko Jaurlaritza.

¹ Tramitatze bidean diren LPPak eta LPSak jasotzen dituen taula. Iturria: Eusko Jaurlaritza: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/eu/contenidos/informacion/ptp/eu_1167/adjuntos/cuadrotppe.pdf

ONARTUTAKO LPPak		ONARTUTAKO LPSak	
		Arabako errepideen LPS	1998/11/23 (98/30 dek.)
		EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatze LPS (Kantauri isurialdea)	1998/12/22 (98/415 dek.)
		Bizkaiko errepideen LPS	1999/04/15 (99/819 dek.)
		EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatze LPS (Mediterraneoko isurialdea)	1999/12/28 (99/455 dek.)
		EAEko trenbide-sarearen LPS	2001/02/27 (01/41 dek.)
		Energia eolikoaren LPS	2002/05/14 (02/104 dek.)
		EAEko hezeguneen LPS	2004/07/27 (04/160 dek.)
		Ekonomia-jardueretarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoru publikoa sortzeko LPS	2004/12/21 (04/262 dek.)
Araba erdialdea	2004/12/28 (04/277 dek.)	EAEko kostaldea babesteko eta antolatze LPS	2007/03/13 (43/2007 dek.)
Biasteri (Arabar Errioxa)	2004/12/28 (04/271 dek.)		
Beasain - Zumarraga	2010/02/04 (09/534 dek.)	Bizkaiko errepideen LPS	(05/4 dek.)
Laudio	2005/01/25 (05/19 dek.)	Bilbo metropolitarraren eta beste hainbat udalerriren trenbide-sarearen LPS (aldaketa)	2005/02/22 (05/34 dek.)
Eibar - Ermua (Debabarrena)	2005/04/12 (05/86 dek.)	Kostaldea babestea	2007/03/13 (07/43 dek.)
Arrasate - Bergara (Debagoiena)	2005/04/12 (05/87 dek.)		
Zarautz - Azpeitia (Urola Kosta)	2006/02/21 (06/32 dek.)		
Igorre	2010/10/28 (10/239 dek.)		
Bilbo metropolitarra	2006/09/26 (06/179 dek.)		

2. taula: LPP² eta LPS³ onartuak⁴. Iturria: Eusko Jaurlaritza.

2 Onartutako LPPak. Iturria: Eusko Jaurlaritza: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/eu/contenidos/informacion/ptp/eu_1167/adjuntos/cuadrotppe.pdf

3 ³Onartutako LPSak. Iturria: Eusko Jaurlaritza: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/eu/contenidos/informacion/pts/eu_1161/adjuntos/cuadrotpse.pdf

4 EAEn lurralde-antolamendua garatzeko prozesuak arautzen dituen araudia. Iturria: Eusko Jaurlaritza: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/eu/contenidos/normativa/legislacion_territorial/eu_legis/indice.html

1. eta 2. taulek erakusten dutenari erreparatuta, bultzada argiak eman dira plangintza sektoriala garatzeko eta ezartzeko. Eta horregatik, garrantzitsua da zeharkako lurralde-politikak garatea eta finkatzea, eta lurralde-plangintzari bere garrantzia ematea, lurraldearen ikuspegi orokorrean oinarrituta koordinazio eraginkorra sortze aldera. Horrela, garapen sektorialeko politika bat antzeman da, zuzenean nahiz zeharka EAEn azpiegitura handiak eraikitzearekin (abiadura handiko trenak, errepideak, hondakinak, portuak, eta abar) lotutako alderdian.

Bestalde, LAGetarako adierazitako indarguneak zein ahulguneak aipatutako plan partzialetan eta sektorialetan ere gertatzen dira. Kasu horretan, herritarren partaidetza bultzatu beharra dago, herritarrei informazioa helarazteko, eta beraien iritzia jasotzeko eta aintzat hartzeko beharrezkoak diren metodoak eta plataformak eratzeko. Gaur egun erabilgarri dauden tresnak zabaltasun handienaz erabiliz.

LPPei dagokienez, berriro ere errepikatuko dugu horiek egote eta garatze hutsa positiboa dela lurraldearen inguruan nolabaiteko kultura eta diziplina sortzen delako eta, bestalde, batere gomendagarriak ez diren politikak nolabait ere mugatzen direlako. Alabaina, zenbaitetan garapen-prozesua luzatu egin da, eta ondorioz, lurralde-dinamikak berak, idazten ziren dokumentu gehienak eguneratu behar izatea ekarri du: aurrerapenak, hasierako dokumentuak, aldi baterako dokumentuak, eta abar. Horrela, itxuraz badirudi plangintza lurraldearen errealitatearen atzetik doala, eta horrek eragina du EAELALk eta LAGek xedatutako orekan. Azkenaldi honetan, eta legealdi honen barruan, plan horien berraztertze berezia eta sakona egiten ari da, baita eguneratze-lan sakona ere, beharrezkoa den gauzatze-erritmoari eraginkortasunez heltzeko, plangintza-dinamikak lurralde-plangintzari aurrea hartu ez diezaion edo inposa ez dadin.

Agerian dago ahalegin berezia egin behar dela ingurumenarekin eta kultura-ondarearekin. Asmo horrekin, paisaia babesteko eta kudeatzeko lege-zirriborroa landu da azken urteotan beste hainbat neurri paraleloz gain, besteak beste honako hauek lantze aldera: mailaz mailako lurralde-jarduera bakoitzerako paisaia-inpaktuen azterlanak nahitaez sortzeko; eskumen eta tresna guztiak garatuko eta ezarriko dituen paisaiaren behatokia sortzeko; paisaiaren master bat finkatzeko, Euskal Herriko Unibertsitateak halako azterlan, txosten eta plan horiek guztiak gauza ditzaketan kargu teknikoak eta profesionalak presta ditzan.

5. LURRALDEAREN ANTOLAMENDU POLITIKAREN EMAITZAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Lehenago adierazi bezala, aipatu beharra dugu LAKo politika EAEn positiboa dela bere horretan, hain zuzen ere lege-esparru sendo horren ondorioz eta dagoeneko aipatuak ditugun legeetako edukiak bitarteko gisa erabiltzearen ondorioz. Erdiko mailan egindako plangintzaren konfigurazioa oso positiboki baloratu behar da; lurraldeari ikuspegi globaletik heltzen dio, gero eskualde eta tokian tokiko mailetatik, eta plangintza zehatzak egiten ditu sektoreka. Horrez gain, tipologia anitz hori osatzen ari da, edo, kasurik okerranean, osatuta ez egonda ere, datozen hilabeteotan osatuko ote den zain gaude. Hala ere, lege-eta plangintza-esparru horren oinarritzko erronketako bat da LAK bere bere baitan jaso zuen eskala hierarkikoa betetzea, guztiak bere lehentasunezko ordena logikoa izan dezan eta zenbait LPSk gehiegi baldintza ez ditzaten ez soilik LPPak lortzea eta behar bezala ezartzea, ezta LAGen ebazpenak ere (maila batean edo bestean lotesleak).

Erronka handi horrekin batera, bada beste erronka bat ere, aurrekoa bezain garrantzitsua; hau da, plan guztien garapen kronologiko egokia, lurraldearen errealitateak LPPak edo LAGen aldaketa ito eta baldintza ez ditzan, eta azken horiek izan daitezten dinamika espazialak zehaztuko eta kontrolatuko dituztenak. Hala ere, plangintza-eraginkortasun

handiago baten aldeko aldarri horrek ez du berarekin ekarri behar murrizketarik herritarren nahitaezko eta halaberharrezko parte-hartzeari dagokionean. Aitzitik, plangintza-prozesua abian jarri aurretik, herritarrekin hasi beharko litzateke lantzen, eta, edonola ere, lurzoruaren eta hirigintzaren inguruko legeak tokian tokiko mailari dagokionez ezarritakoaren arabera, herritarrek plangintzan parte hartzeko prozesu paraleloak abiarazi behar dira. Hala gertatu ezean, gizarte-mailako gatazkak saihestezinak izango dira, eta gizartearen borondate txarra ekarriko du (Ekologistak Martxan, 2004).

Gizartearen parte-hartze esparru horretan txertatu behar da mundu-mailako aurrera begirako beste erronka nagusietako bat, gurean aintzat hartu beharrekoa. Funtsezkoa da paradigma nahitaez aldatzea, gehiegizko kontsumotik (eta horren barruan, neurri handi batean, lurzoruaren kontsumoa eta zementazioa –zalantzarik gabe askoz ere txikiagoa EAEn Estatuko gainerako lurraldeetan baino–, nekez berritu daitezkeen lurralde baliabideen kontsumoa –energia, ura, eta abar–, hondakin gehiegi sortzea, horiek behar bezala ez lantzea, eta abar) bestelako optimizazio-paradigma batera (erritmo biologikoak, klimatikoak eta geologikoak errespetatuz, eta eskala guztietan errespetuzkoak izango diren jarrerak eta ekintzak martxan jarritz). Paradigmak aldatzen lehena eskalarik txikiena baina aldi berean erabakitzaileena, norbanakoarena, izan dadin, ezinbestekoa da kontzientziazio, sentsibilizazio eta heziketa ahalegin osoa eta etengabea egitea. Gai horretan eskumena duten eta herritarrengandik hurbilen dauden administrazioek (udalak, aldundiak, autonomia-erkidegoetako gobernuak; ordena ordezkatzailan) izan behar dute dinamika horietan aitzindari, abiapuntu hartuta informazio-prozesu egiazkoak eta globalak, eta herritarrek parte hartuko duten foro arduratsu eta erabakigarriak. Horietan oinarrituta, eredueta eta mailaz maila aldaketa nabarmenak eman beharko lirateke. LArri dagokionez, lurraldearen aukerek zehaztu eta baldintzatu behar dituzte, inolako zalantzarik gabe, jorratu beharreko ildo estrategikoak, lurzoruak jarduera- nahiz erabilera-aukera anitzak hartzeko dituen gaitasunen bidez. Horrela, gizarte baten bizi-kalitateak badirudi zuzeneko lotura duela gizarte horrek bera babesten duen eta hornitzen duen ekosistemaren harrera-gaitasuna bere horretan mantentzeko duen borondatearekin (Bermejo, 2005).

Autonomia-erkidegoari dagokionez, LAGen eta gainerako plan partzialen eta sektorialen lurralde-ereduak eredu baliagarria egituratzen du, baina eredu horrek 90. hamarkadan lurraldearen plangintza egin zuenak landu ez zituen kontzeptu berriak ezarri behar ditu.

Beharbada, eta arestian aipatutako etorkizuneko erronken ildotik, oinarritzko ildo edo sektoreetako bat Euskal Autonomia Erkidegoko egungo mugikortasun-eredua optimizatzea litzateke. Gaur egun garraibide pribatuaren (autoa) gehiegizko erabilpena dei dezakegun horren eskema eta salgaien ibilgailu-trafiko bolumen handia kontrolatu eta koordinatu beharra dago, trafikoaren komunikazio-bide handiek (autopistak, autobiak, eta abar) jokatzeko duten paperarekin.

Mugikortasun-ereduarekin jarraituz, esan beharra dago ezinbestekoa dela portu- eta aireportu-azpiegitura handien aldeko apustuak sakon aztertzea, eta, halaber, baloratzea horien sinergiak eta sortuko diren itzulkinen nahitaezko oreka, itzulkin horiek eragin positiboa izan dezaten lurraldearen orekan.

Beharbada, LAko politikaren lorpenik handienetako bat izan da hasieratik beretik hainbat iruditan (EAELAL, LAG, LPP...) proposatutako eta errepikatutako helburuetako bat lortu izana. Aipatu bezala, esparru arauemaile eta plangintzako esparru hori prestatu zenean, ekonomia-sektore nagusien birmoldaketa (siderurgia eta metalurgia, ontzigtza, eraldaketa siderurgikoa, industria laguntzailea) ekarri zuen krisi batetik ateratzen ari ginen. Horrek espezializazio handia ekarri zuen, baina, aldi berean, autonomia-erkidegoaren eta erregioaren postu ekonomiko nagusia (70. hamarkadaren bukaera eta 80aren hasiera). Sektore zehatzetako hiperespezializazio baten ondorioak kontuan hartuta, ekonomia-iturriak

eta oinarriak dibertsifikatzearen alde egin zen (abiapuntu hartuta enplegu-politika publikoak, ekonomia-jardueretarako lurzorua, enpresa-kokapenak, industria-dibertsifikazioa, tradizioz industrialak ez diren eremuak birkokatuz, eta abar), hala moldez, non krisia baliagarria izan baitzen ondorio onak ateratzeko eta geroztiko gelditze ekonomikoak saihesteko. Horrela, gaur egun, lurraldearen indarrik handienetako bat da lurzoruaren erabilera, eskualde-tipologia, baliabide, eta ekoizpen-oinarri aniztasun handia, besteak beste. Horren ondorioz, ez dago ekonomia- eta lurralde-espezializazio berezirik sektore batzuetan edo erabilera batzuekiko; horrela, malgutasun handia dago bai ekonomiaren arloan, bai eskualdeen eta udalerrien bokazioan. Hori baliagarria izan da, era berean, ekoizpen-oinarrien kokapenetik kanpo geratu ziren eskualdeek gaur egun aukera onak izan ditzaten. Beren aukerak nabarmen gaintu zituen eskualdeei, berriz, zenbait lurzoru beste erabilera batzuetarako bideratu zaizkie, gaur egun dituzten premietara lotuagoak. Azken horren eredu dugu Bilboko ezkerlaldearen birmoldaketa eta hiria bera berritzea. Horrela, industria-ekoizpenerako ziren lurzorua nabarmen jaitsi badira ere, lurzoru horiek inbertsio publikoak eta pribatuak erakartzeko elementurik dinamikoenetako bat dira, eta, hortaz, sinergia- eta dinamika-sortzaile ezin hobea.

Beste aukera bat, eta, beraz, gaitasun handia duen etorkizuneko erronka bat, ingurumen aberastasun handia da eta paisaiaren aldakortasuna eta kalitatea da. Orain kontua da, Natura 2000 Sarean jasotakoaren arabera, hobekien zaindutako eremuetan eta horien lotunetan erabilerak arautzea, hainbat baliabide kontuan hartuta: besteak beste, paisaia, fauna, landaredia, kostaldea, eremu istilduak eta ibai-eremuak. Nolanahi ere, badira katalogaturik ez dauden, eta gai horretan eskumenak dituzten LPP eta LPSen garapenaren bidez kontuan hartzeko adina ezaugarri ekologiko dituzten beste eremu batzuk ere. Horien artean ditugu, besteak beste, ingurumen-balio altuko nekazaritza-guneak, korridore ekologikoak, natura- eta kultura-paisaiak eta ibai atlantikoko ibai-ahoen eremu zingiratsuak. Aukera ugari horri loturik ageri dira antolamendu-joera berriak. Garapen jasangarriaren aldeko apustua egin da, eta, horretarako, arestian aipatutako eta deskribatutako dokumentu guztiek, teoriarik, gobernu autonomikoaren eta foru-gobernuen estrategiez jantzirik egon behar dute. Inplikaturik dauden administrazio guztien arteko adostasunak lortzen lan egin behar da. Hori guztia, Europar Batasuneko kideek beren gizarteek duten 'oinatz ekologikoa' izeneko kontzeptuari heltzen egindako ahalegin ugarien barruan txertatzen da. Horren bidez, lurraldearen eragina duen jardueren bakoitzaren jasangarritasun-mailaren diagnostikoa egin asmo da; hartara, inpaktu edo xahutze gehien sortzen duten sektoreak nahiz politikak zuzenduko lirakeke, eta jasangarritasun-parametroekin bat etorriko diren mailalara egokitu. Diagnostiko horrek agerian uzten du hainbat gai zorrotzago aztertu eta bestela landu beharko lirakekeela askoz ere jasangarriagoak lirakekeen eredu bidez: natura-baliabideak erabiltzea, berotegi-efektua eta klima-aldaketa dakarten gasak isurtzea, gai kimikoak isurtzea, hiriguneak sortzeko lurzoruaren erabilera gehiegizkoa, eta abar. Errealitate horren aurrean, eragilei aurreikusten zaien hazkundea eta ingurumen-inpaktua bereiziko dituzten tresnak bilatu behar dira. Politika sektorial guztietan txertatu behar dira ingurumenaren arloko helburuak, ekimen pribatuaren beraren barruan, eta LAREN politikaren estrategia integrala aintzat hartuta.

Dokumentu honen barruan hainbat gizarte-eragileren artean adostutakoa gauzatzearekiko nolabaiteko susmoa ager badaiteke ere, itxaropentsu izaten jarraitzen du abiapuntu gisa hartuta. Rioko (1992) eta Posdameko (1999) estrategiak eta Europako Lurralde Estrategia (ELE) bitarteko mailetako antolamenduan eragiten eta horiek argitzen hasiak dira.

Bestalde, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako aproposak diren eremuak zaintzen jarraitzeko erronkari heldu beharko litzaioke. Ildo horretan, produkzioak turismoaren batasunera (landa-eremukoa edo ingurumenekoa) eta balio ekonomiko altuko kalitateko produktuak lortzera bideratzen ari dira, hainbat etiketaren pean: jatorri-deiturak, produktu

ekologikoak, euskal labela, eta abar. Izan ere, EAEko biztanleriaren baitan oso erroturik dago tokian tokiko eta kalitateko produktuak kontsumitzea. Kontuan harturik produktu horiek jasangarriagoak direla (ez dute garraioan energia askorik xahutzen, eta horrez gain ongari kimiko eta plagizida gutxi erabiltzen dituzte), administrazioak berak jarraitu beharko du produktu horiek bultzatzen eta babesten. Azken urteotan, merkaturatze-estrategia berriak antzeman daitezke, bai baratzeako ohiko produktuei dagokienez, baita abeltzaintzako hainbat produkturi dagokienez ere (haragia, arrautzak, esnea, eta abar). Alde batetik, ustiapen askok kontsumitzaileen babeska eskatzen dute; horren arabera, kontsumitzaileek baserritarrak ustiapen xume horien errentagarritasunari eusteko kuota bat ordaintzen dute, eta, bestetik, nekazariak kontsumitzailea ustiatetikiko produktuekin erregulartasunez hornitzeko konpromisoa hartzen du. Horrela, ekoizle txikia merkatu globalizatuekin lehia daiteke, bitartekariak eragiten dituzten kostuak murriztuz. Kontsumitzaileak (oro har, kalekumea), berriz, bermaturik du produktuak freskoak direla, hurbilekoak, kalitatekoak eta merkaturatze-bide estandarretan daudenak baino askoz ere jasangarriagoak. Aipatutako horren adibide paradigmatico bat esnea banatzen duten makinak dira. Baserritarrek esnea bertara eramaten dute eta kontsumitzaileek egunean bertan jasotzen dute. Horrela, baserritarrak duen marjina ekoizpen- eta merkaturatze-zentro handiekin lehiatzeko behar bestekoa da.

Horrez gain, kontuan hartu behar da, horrela jardunda, euskal herriko nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenari eutsita, LAko politiketan jasotako beste helburu batzuk ere erdiesten direla: besteak beste, landa-eremuetako populazioari eustea, eta kultura-paisaia tradizionalen egoera ekologikoari eustea.

Orobat, aintzat hartu beharko genuke zenbait eremutan soilik egiten dutela bat bi mundu edo ekoizpen desberdinek. Horixe da Arabako Lautadaren kasua. Eremu zabal eta ondo orientatuek eguzki-energia ekoizteko aukera handia dute. Hainbat produkturen prezio baxua (zereala, erremolatxa, patata, eta abar) pizgarri izan daiteke eguzki-baratzetan inbertitzeko. Horrek, gainera, laguntza publikoak jaso beharko ditu. Horrela, negozio-bektore erdipubliko garrantzitsu bat konfiguratu liteke, ingurumenaren arloan eta klima aldaketa globalari aurre egiten onura nabarmenak ekarriko litzukeena.

Aurrekoarekin oso loturik, eta EAEko edozein plangintza-iruditan helburu gisa jaso, 'Euskal hiria' deritzan horrek erakusten duen aukera handia dago. Ez dira gutxi kontzeptu hori lekuan bertan garatuz ager daitezkeen aukerak. Horretarako, Europan gaur gero egon badauden eredu oso antzeko ereduak hartu beharra dago; paradigma Holandako Ranstad izan daiteke. Lankidetzeta-asmoa, probintzia-mailako hesi kulturalak eta lurraldekoak garapen integratuago, jasangarriago eta lankidetzan oinarritutako garapenaren mesedetan gainditzeko asmoa euskal gizarteak, bere osotasunean, onartu behar du. Ideia hori lagungarria izan daiteke barne-arazoak gainditzeko: besteak beste, isurialde atlantikoan dagoen lurzoru eza. Bestalde, jarduera sortzeko ekimenak erakartzeko apeu gisa eta lurraldea Europarekin hobeto lotzeko ere baliagarria izan daiteke. Ildo horretan, tradizioz nukleo anitzeko eredu baten alde egin izan den apustua hartu behar da kontuan. Horretan, biztanleria, ekimen publikoak eta azpiegitura handiak ondo banaturik egon behar dute, inork nahi ez dituen makrozefaliak edo lurralde- eta gizarte-desorekarik egon ez daitezken. Hala ere, nahiz eta helburu handi hori EAELALEk edo LAGEk hasieratik beretik jaso, betetze-maila hobetu egin daiteke. Lehen mailako hiru nukleo handiko ereduak gizartearen, esparru politikoaren eta teknikoaren onspena altua jaso du, baina oraindik orain desberdintasunak eta desorekak daude. Arabaren kasua nabarmena da; herritar gehienak Gasteizen bizi dira, eta eremu zabalak daude oso biztanle-dentsitate baxuarekin. Hainbat eremurik, Arabako Mendialdea kasu, gehiegizko espezializazioa dute lehen sektorean, biztanleria zahartua, eta geroari begirako aukerak batere itxaropentsuak ez izateko moduko maskulinitate-ratio aski altua. Bizkaiari dagokionez, Bilbok jarraitzen du izaten herrialdeari bultzada ematen

dion konurbazioa. Aldi berean, zenbait eremurik (esaterako Enkarterriak, Urdaibai, Markina eta Durangaldeako zati bat), kasu honetan, komunikazio gabezia erakusten dute. Gipuzkoa beti hartu izan da orekatuen dagoen lurralde gisa. Biztanleria egokiago dago banaturik. Orografia oso malkartsua da, eta, hortaz, batere mesedegarria, baina, bestalde, ibarretako hondoko lurrak okupatzea bultzatu du ibai-sistematik garrantzitsuenetan: Bidasoan, Oihartzunen, Urumean, Orian eta Deban. Hori, hasiera batean positiboa bada ere, kalitate edafikoko eta nekazaritza balio handiko lur-eremuak zementatzea ekarri du. Ibar-hondo horiek urbanizatzeak eta industrializatzeak berak ere indarra kendu die lehen sektorearekin lotura duten jardueri, eta, halaber, lurralde horiek teoriarik eskaini zitzaizketen aukerak estali ditu.

LPPak burutzeak berak ere eremu-buruak eta bigarren, hirugarren, laugarren... mailako guneak indartzea ekarri lezake, lurralde-baliabideen bidezko banaketarako helburuak betetzeko moduan. Eginkizun horretan garrantzi handia hartuko dute eremu batetik bestera egin daitezkeen arintze-prozesuak (populazioarena, errentena, azpiegiturena, ekonomia-jarduerako azalera publikoena, eta abar). Orobat, sozialki, ekonomikoki eta lurraldearen ikuspegitik errentagarria izan daiteke eskualde-mailako eta tokian tokiko bide- eta trenbide-azpiegiturretan inbertitzea.

Gure eskualdearen beste ezaugarrietako bat arestian jasotako gaitasun guztien garapenean eragina duten eskumenen banaketa da. Hainbat alderdi (itsas portuak, aireportuak, trenbideak, zenbait errepide, besteak beste) oraindik ere Estatuko Gobernuaren esku daude. Horren lekuko argia trenbideena da. Arestian aipatu bezala, tren-trafikoaren berregituraketa sakona egin beharra dago. Horrez gain, lehiakortasuna galdu duten, baina hirigunerik garrantzitsuenetan aldiriko garraioan gaitasun handia izan dezaketean garai bateko ibilbideetan inbertsio eta kudeaketa egokiak egitea ezinbestekoa da. Areago, komenigarria litzateke kontuan hartzea eta baloratzea horren ondorioa ingurumena leheneratzeko prozesuan eta hesi ekologikoak ezabatzean.

Etorkizuneko mehatxu edo erronka handietako bat (emaitzen arabera, bi alderdi horiek txanpon bereko bi aldeak baitira) lurralde-, gizarte- eta ekonomia-eredu anglosaxoi bat (funtsean iparramerikarra) inportatzea da. Gaur egun, lurralde- eta hirigintza-esparruak egoki moldatu du (hobetu badaiteke ere) eraikigarria ez den lurzoruan eraikin bakanduak eraikitzea saihestea. Halaber, denda txikien eta merkataritza-gune handien interesak orekatu ditu LPSen bidez. Ildo horretan, lehenari dagokionez, dentsitate baxuko etxebizitzak ugartzea saihestu beharra dago; familia bakarreko etxeak lorategiarekin edo etxebizitzak atxikiak. Eredu hori ezin eutsizkoa da horren mugatua den, eta horren lurzoru gutxi duen lurralde batean. Horri gehitu beharra zaio horren sakabanatua duen habitata azpiegituz hornitzeko eragozpena, eta bidaiarien errepide bidezko trafikoaren igoera esponentziala, garraio kolektiboen kaltetan. Horrekin batera, bigarren alderdiari dagokionez, merkataritza-gune handiak ugartzen ari dira. Horrekin, aspalditik herrialdeko burgesia txikiaren eta aipatu lurraldeko hiriek eta asentamenduek duten garapenean ezaugarri izan den dendari txikiaren lehiakortasuna galdu egiten da. Horrela, gizarte-eredu horretan bizimodua gero eta indibidualistagoa, autonomoagoa da, Mediterraneoko ereduaren ezaugarri izan den auzokideen arteko eta gizarte-eremu bizi hori gabe (Lozano, 2003). Neurri handi batean, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren lege berriak saihestu egiten du dentsitate baxuko etxebizitzak eta merkataritzako makro-guneak ugartzea (azken horiek neurri apalagoan). Are gehiago, esan dezakegu industrializazio-prozesua izan zela joera-ildo horren inflexio-puntua. Horrela, ez da erraza egungo ereduaren populatze-motaren eta gizarte-harremanen arteko kausa-efektua identifikatzea.

Azkenik, etxebizitzak eraikitzeo politika da ahulezia kronikoa eta etorkizunari begirako erronka handia. Hirigune handietan dagoen lurzoru ezak eta ondasun urri horren ondoriozko

espekulazio-prozesuek ekarri dute Donostia egotea beti Estatuan etxebizitzarik garestienak dituzten lehen hiru hirien artean. Bilbo lehen zortzien artean dago, eta Gasteizek, berriz, lurzoruaren prezio-igoerarik handiena izan zuen 2000tik 2005era bitartean. Prozesu horiek kontuan hartu ziren EAEko lurzoruaren eta hirigintzaren legea idatzi eta onartu zirenean. Lege hori askoz ere murriztaileagoa da espekulazio-prozesuekin lurzoruaren prezioak jaitsiz geroztik. Urbanizagarriak diren sektoreetan, etxebizitzaren % 75 babestua da (% 50 BOE eta % 25 tasatua). Hala ere, dinamika horiek 2008az geroztik pairatzen ari garen ekonomia-krisialdi baino lehen garatu ziren. Dena den, krisi horrek ez du prezioen jaitsiera esanguratsurik ekarri. Horrela, Bilbok eta Donostiak (batez ere bigarren horrek) dituzte etxebizitzarik garestienetakoak. Gasteizen, berriz, jaitsiera nabarmena izan da. Nolanahi ere, lurraldearen plangintzak eginkizun garrantzitsua bete dezake aukerarako espazioak ahalbidetzeko, eta, aldi berean, neurrigabe garatzen ari zen hirigintza-merkatu horren garaian itsu-itsuan eraikitzeke inertiari mugak jartzen dizkio. Horri dagokionez, krisia paradigma globala aldatzeko aukera gisa hartu behar da.

Jarraian, LAGak aldatzeko gakoei buruzko ohar labur batzuk egin ditugu; gako horiek aipatu dokumentuaren berrazterketatzat hartu dira. Horretan, ez da inolako azpiegitura handirik proposatzen, ezta dagoeneko egon badauden eta garabidean diren azpiegiturak ez diren bestelako elementurik ere. LAGen berrazterketaren azpiegitura-proposamenak bizi-kalitatea hobetzera eta lurraldearen jasangarritasunera bideratu dira (aldirikoen sarea, gaitasun handiko errepideak eko-bulebar bihurtzea, korridore ekologikoak, eta abar), baita egun dauden nahiz aurreikusita dauden azpiegituren funtzionalitatea eta lurralde-integrazioa hobetzera ere (sistema intermodalak orokortu, hiri- eta natura-ingurunearekin egituratzeko ekintzak, espezializazio funtzionala, eta abar). Horiek guztiak lehentasunezko aukerak dira azpiegiturak hartutako lurraldea areagotzea saihesteko.

LAGek hobetzat hartzen dute industria-sektoreak mantentzea eta garatzea EAEren garapenerako funtsezko elementu gisa. Hori dela-eta, lurralde-ikuspegi batetik industria-ehuna indartuko duten ekimenak proposatzen dira (kontuan hartu behar dugu LAGak ez direla ekonomia-plangintzarako tresna). Ildo horretan, honako hauek proposatzen dira, besteak beste: industria-lurzoruak mantentzea, industriaren lehiakortasunerako funtsezkoak diren sistema logistikoak hobetzea, I+G+Bko jarduerak bultzatzea, ezagutza sortzea eta jarduera produktiboak uztartzen dituzten guneak garatzea, industrialde tradizionalak hobetzea, eta zaharkituta dauden industria guneak berrerrabiltzea ekimen produktibo berrietarako. LAGen ezein proposamenek ez dakar inplizituki nahiz esplizituki industria gutxiestea beste jardueren mesedetan, aipatu sektoreak tamaina txikiagoko baina eraginkor, produktibo eta elkarri lotuago dauden unitateekiko erakutsi duen bilakaera bultzatuz.

Gauza bera esan dezakegu lehen sektoreaz. Berrazterketak esplizituki baieztatzen du nekazaritzako eta abeltzaintzako espaziorik nahigarriena gaur egungo erabilerei eustea dela. Kalitateko produkzioak eta ekologikoak bultzatzearekin lotura duten aukerak, eta jarduera horiek lurraldearen ingurumen- eta paisaia-kaliterako elementu gisa bultzatzea proposatzen da.

Hiri-perimetroak ezartzeak eta urbanizatutako eremuen hazkundeari mugak ezartzeak nekazaritzako eta abeltzaintzako lurren erabilera aldatzeko presioari murrizpen nabarmena ezarriko dio, eta nekazaritzarako tasun horri eutsiko dio.

Bestalde, nahiz eta *a priori* nahigarria izan ez, aspalditik jaisten ari dira lehen sektoreko ustiategiak eta aktiboak, hainbat arrazoi tarteko: besteak beste, ustiategietan ondorengorik ez egotea, lurraren gaineko presioa handiagoa zen garaietan ekoizpenera bideratutako lursailen egokitasun eskasa, eta ustiategi asko neurritz egokiak ez izatea edo ekoizpen-orientazio ez egokia. Egoera horren aurrean, LAGek hainbat proposamen egin dituzte: besteak beste, basoberritzea, ingurumen-zerbitzuak ustiategien errenta-iturri gisa sartzeara,

kudeaketa-sistema berriak, eta nekazaritza-sistemei eustea ahalbidetuko duten ekoizpen-orientazio berriak.

LAGen berrazterketak hiri-eskualde polizentrikoa proposatzen du, hau da sare egitura duen lurraldea, eta horretan beren aukerak dituzten hiriburuak, hiri ertainak eta landa-eremuak txertatzen dira, zein bere aldetik egituratuta baino multzo orekatuagoa, erakargarriagoa, anitzagoa, jasangarriago eta dinamikoagoa sortzeko. Helburu hori dute honako proposamenek: eremu funtzionalen eraldatze-ardatzek; aldiriko trenen eta tranbien sistemek; zentro historiko, landa-gune eta itsasertzaren identitate-nodoetarako ekimenez; nahiz hazkunde berriekiko populazio gune tradizionalak indartzeko politikak.

Sare-egiturako lurraldea anitzagoa eta interkonektatuagoa da, eta maila handiagoko ekipamenduak eta zerbitzuak eduki ditzake; leku bakoitzeko identitatea multzoak eskaintzen dituen aukerekin harmonizatzen duen lurraldea.

Horren emaitza hiri-egitura polizentrikoa da, Europako Lurralde Estrategiaren (ELE) jarraibideekin bat datorrena, masa kritiko handiagoa izango duena, giro- eta aukera- eskaintza anitzagoa izango duena, eta asmo handiagoko proiektuak garatzeko aukera izango duena. Egitura berri horretan, zentroen mugak eta funtzioak eta jarduerak gero eta lurralde zabalagoetan eta anitzagoetan banatzen dira, eta lan-merkatu bakarra eta harreman estuagoko gunea sortzen dituzte. Eremu integrala, bizitzeko, lan egiteko, dibertitzeko eta ikasteko.

5. ONDORIOAK

Jarraian, eta labur, EAeko lurralde-antolamenduko politikaren eta irudien analisisik ateratako ondorioak jaso ditugu.

- EAEn LAko politikak 4/1990 Legeak, euskal autonomia-erkidegoko lurralde-antolamenduari buruzkoak (EAELAL) xedatzen ditu.
- Aipatu legea autonomia-erkidegoan gauzatzeko abiapuntua EAeko Lurralde Antolamenduko Gidalerroen (LAG) garapena da.
- Aipatu legea eskualdean gauzatzeko abiapuntua Lurralde Plan Partzialen (LPP) garapena da. 15 LPP, zehaztutako 15 eremuetarako, bana.
- Aipatu legea sektoreka gauzatzeko abiapuntua Lurralde Plan Sektorialen (LPS) garapena da. 22 LPS, zehaztutako 22 sektoretarako, bana.
- Eskala hierarkikoa oso argi ageri da EAELALen: horren arabera, lehentasuneko dokumentua LAGak dira; horren pean daude LPPak eta, azkenik, LPSak. Tokiko eskala, HAPOak oinarri hartuta, behar bezala baldintzatu behar dute arestian aipatutako irudiek eta horien kokapen hierarkikoak.
- LAGak garatzeak plangintza- eta lurralde-kultura argiak ekarri ditu. Bere lopenekin eta gabeziekin.
- Bai LPPak, bai LPSak onartze- edo ezartze-bidean daude. Adierazi beharko litzateke zenbateko garrantzia duen lurraldearen koordinazio integralak lurraldean diharduten politika sektorialekiko.
- Erronka orokorra da paradigma nahitaez aldatzea, eta hazkunde etengabeko eta ezin utsizkotik lurraldearekin eta lurraldeak ematen dizkigun baliabideekin askoz ere adeitsuagoak diren dinamiketara pasa. Gure garapena ezinbestean oinatz ekologiko zentzuzko batera egokitu beharra dugu. Horrek zuzenean eragiten dio lurralde-ereduari,

energiari, iraunkortasunari, asentamenduen sistemari, naturaren babesari eta larriki kutsaturik edo inpaktaturik dauden eremuak leheneratzeari.

- LAK parte-hartzailea eta adostasunez landutakoa behar du izan, prozesuak eta planak, informazio-neurriak eta herritarren parte-hartzea abian jartzen diren unetik beretik.
- Sakon hausnartu behar dira honako alderdi hauek: mugikortasun-eredua, energia-kontsumoa, ingurumenaren babesa, eskualdeen garapen orekatua, eta etxebizitzaren inguruko politika.
- EAEko gobernuaren asmoa da, azken finean, honelako lurraldea lortzea:
 1. entamendu-sistema mamitsuagoa eta trinkoagoa izango duena.
 2. Kanpoarekiko hobeto konektaturik egongo dena, eta barrura begira interkonektatua.
 3. Orekatuagoa, anitzagoa eta elkarrekin erlazionatuagoa, eta sare-egiturako hiri-eskualde polizentrikoa eratu.
 4. Bioaniztasun aberatsagoa eta hobeto zaindua edukiko duena, eta paisaia erakar-garriagoekin.
 5. Garraio-sistema kolektiboei erabilera handiagoa ematera bideratutako hiri-eremuak edukiko dituena.
 6. Berritzearen eta birziklatzearen alde egingo duena, hazkunde iraunkorrerako oinarri gisa.
 7. Energiari dagokionez, eragimen handiagokoa eta berotegi efektuko kutsatzaileak eta gasak murriztuko dituena.
- Krisi globala aukera nabarmen gisa hartu behar da lurraldearekiko gure jokabidea serioski aldatzeko.
-

6. ESKER ONAK

Artikulu hau 'Euskal Autonomia Erkidegoko natura-balio handiko nekazaritza guneen balorazio paisajistikoa, ingurumenekoa eta sozioekonomikoa. (GIU10/07)' izeneko eta Euskal Herriko Unibertsitateak diruz lagundutako proiektuaren barruan txertatzen da.

Gure esker ona adierazi nahi diogu Eusko Jaurlaritzari eta, bereziki, Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzari komunikazio honetan emandako laguntzagatik eta erabilitako material grafikoagatik.

7. AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

Arbaiza, JK eta Lozano, P. (2010): "Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak". Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Ávila, J.L. (1992): *“La ordenación del territorio en el País Vasco: análisis, ejercicio y delimitación competencial”*. Herri Ardurularitzaren Euskal Erakundea eta Ed. Civitas, Madrid.

Bermejo, R. (2005): *“El paradigma dominante como obstáculo para la sostenibilidad: La transformación epistemológica y paradigmática de la economía sostenible”*. *Ekonomiaz*. *Ekonomiari buruzko Euskal Aldizkaria*, 64. zk, 36-71. Vitoria-Gasteiz.

Davila, N. (2007): *“El modelo DPSIR como propuesta metodológica de análisis territorial. El ejemplo del Área Funcional de Donostialdea-Bajo Bidasoa (Gipuzkoa)”*. *Asociación de Geógrafos Españoles*.

Davila, N. (2007): *“La aplicación del modelo DPSIR al Área Funcional de Gernika-Markina (Bizkaia). Un ensayo metodológico de análisis territorial”*. *Asociación Castellano-Leonesa de Ciencia Regional*.

Davila, N. (2010): *“Sugerencias para una correcta planificación territorial en el País Vasco”*. *Asociación Interprofesional de Ordenación del Territorio*.

Davila, N. (2011): *“La planificación territorial como herramienta de gestión sostenible del territorio. Los Planes Territoriales Parciales de Donostialdea-Bajo Bidasoa y Gernika-Markina”*. UPV-EHU.

Diamond, J. (2006): *Colapso. Por qué unas sociedades perduran y otras desaparecen*. Círculo de Lectores. Barcelona.

EKOLOGISTAK MARTXAN (2004): Legea eskuan. Zelan erabili zure eskubideak ingurumenaren alde? Gida praktikoa. Ekologistak Martxan, Koadernoak.

EKOLOGISTAK MARTXAN (2004): <http://indarki.blogia.com/2008/011502-ejemplo-de-conflicto-por-la-des-participacion-ciudadana.php>

Erquicia, J. M. (2003): *“Del planeamiento urbanístico a la ordenación del territorio: la necesidad de un cambio de escala. El caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco”*, Vitoria-Gasteiz: Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Saila, Eusko Jaurlaritza.

EUROPAKO BATZORDEA (1999): Europako Lurralde Estrategia (ELE). Europar Batasuneko (EB) lurraldearen garapen orekatu eta iraunkor baterantz. Lurralde-garapeneko batzordea.

EUSKO JAURLARITZA: 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduari buruzkoa.

EUSKO JAURLARITZA: 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, EAeko Lurralde Antolamenduko Gidalerroak behin betikoz onartzeari buruzkoa.

EUSKO JAURLARITZA: Lurraldearen Zatiko Planak (Bilba Metropolitarrak, Laudio, Guardia, Araba Erdialdea, Eibar, Arrasate-Bergara eta Zarautz-Azpeitia, http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/ptp/es_1167/presentacion_c.html).

Franco, H. (2003): *Garraioko azpiegiturak eta dinamikak jasangarritasunaren ikuspuntutik*, Barcenan, I. (koord): *Globalizazioa eta ingurumena*. Euskal begirada bat. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.

Gomez, D. (2002): *Ordenación territorial*. Ediciones Mundi-Prensa.

Lasagabaster, I. (2008): Lurraldearen antolamendua: zer den, eta izan beharko lukeenari buruzko zenbait ideia. Manu Robles Arangiz Institutua.

Lasagabaster, I. eta Lazcano, I (1999): *Régimen jurídico de la ordenación del territorio en Euskalherria*. HAEE, Oñati

Lozano, P. (2003): *La ordenación territorial en el País Vasco. Debilidades, amenazas, fortalezas y oportunidades de la escala intermedia. Investigaciones Geográficas*, 32. zk. Instituto Universitario de Geografía. Universidad de Alicante. 157-176 or.

Lozano, P. eta Davila, N. (2011): "La disponibilidad de suelo en el Área Funcional de Donostialdea-Bajo Bidasoa (Gipuzkoa). Repercusiones dentro de la Ordenación Territorial". Scripta Nova.

Lozano, PJ (2010): "La política de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma Vasca. Ekonomia aldizkaria, Eusko Jaurlaritz. Vitoria-Gasteiz.

Mc Neill, J.R. (2003): "Algo nuevo bajo el sol. Historia medioambiental del siglo XX". Alianza Ensayo. Madril.

NBE (1987): Brundtland txostena. Gure etorkizun komuna. NBE, <http://www.oarsoaldea.net/agenda21/files/Nuestro%20futuro%20comun.pdf>.

Pujadas, R. eta Font, J. (1998): "Ordenación y planificación territorial". Editorial Síntesis.

Ruiz, E. (2006): "Informe sobre la Revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Informe-agnóstico DOT: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/dots_reestudio/es_1165/informesc.html

Urkidi, P. (2007): "El planeamiento territorial integral en la Comunidad Autónoma Vasca: de las Directrices de Ordenación Territorial a los Planes Territoriales Parciales, Actas del Congreso de la AGE".